

Indarkeriak

Antton Izagirre

Haurra galdu berria, gorpu, emakumea, ama, negar eta orroka itsasoari zergatik galdezka. Ez du inon erantzunik aurkitu. Egunak joan dira eta kontzientzian eragin digun lehen danbatekoa ahaztu zaigunean, zer da ama eta emakume hartaz? Istripua izan zela esango dute batzuek. Zergatik ez biolentzia deitu? Migratzailea, emakumea, haurra, ama... indarkeriak eraitsi du.

Gure mundu aberatsak haren lurra berotzea, idortzea, natura ondasunak suntsitzea, klima larrialdia, pobretzea... eragin ditu, ama horren lurraren aurkako biolentzia. Herrietatik ihesera, emigratzera, behartu ditugunean, itsasoa besterik ez diegu opa, ito arte. Ama Lurra galdu dute.

Zergatik deitzen diogu Ama Lurra, haren gaineko jabetza eta eragiletasuna gizonen eskuetan dagoen ondareari?

Gizarte eredu desberdinetan, geurea barne, iruditegia sinbolikoan, lurrari eta emakumeari emetasun, amatasun, emankortasun, ugalkortasun baloreak aitortu izan zaizkio. Ama jainkosaren begirada horretatik eraiki da Ama Lurraren mito hori guztia.

Pentsatu eta argudiatu izan dute, batzuek, gizakiaren historia ebolutiboan, matriarkatua nagusi izan zen garaietan, emakumeak bere gorputz, lur eta ondasunaren gaineko agintea izan zuela. Matriarkatua gizonen sortu zuten mitoa izan zela ondo frogatu dute adituek.

Ez al da ba kontraesan handienetakoa Ama Lurra deitu eta hura menderatzeko

hari erasoka aritzea, suntsitze bidean jarritz?

Migratzaileak, haurrak, amak, emakumeak, zaurgarriagoak egin dituen ez da natura, itsasoa, lurra edo norberaren gaitasun eta erabakimena. Gizarte injustu baten oinarriak dira errotik aldatu behar ditugunak.

Gizarte eredu hori bera ageri zaigu, une oro. Egun hauetan bertan, ikusgai, erantzule egin dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistak salatu ditugunean.

Eta Euskaraldian gaudela kontu egin da, ezin ahaztu euskara minorizatuak ere jasan duen biolentzia estrukturala.

Begien aurrean ditugun errealitate argiak guztiak, neurriko praktika herritarak eta politikoak behar dituztenak. •

Gustuko dudan txokoa da hau

Miren Azkarate
Badiola

Duela lau urte eta erdi hasi nintzen txoko honetan lerrotxo hauek idazten. Ez ez, ez pentsa datuarekin gogoratzen nintzenik, begiratu behar izan dut eta aitortu behar dizuet ez nuela uste hainbeste denbora neramanik nire gaiak zuekin konpartitzen.

Disko gogor batean dena gordetzeko mania dut; nire lanak, nire kolaborazioak, musu truk egiten ditudan lanak... Eta hantxe aurkitu ditut GAUR8 karpentan hilabeteroko zutabe hauek. 2016. urteko uztailean estreinatu nintzen zehazki eta gaurdaino.

Ez ez, ez naiz agurtzen ari!

Zuekin hamaika gai partekatu ditut; batzuetan haserretik, bestetan pozetik, gaurkotasunezko albisteak edo atemporalak, datu bitxiak eta ezagunak... Hausnarketarako tarteak izan da askotan eta bestetan barrua askatzeko lekua ere.

Ez pentsa erraza denik hilabetero orri txuri baten aurrean jarri eta esatea «ale, hasi idazten!». Askotan pentsatu izan dut errazagoa izango litzatekeela egunero idaztea, baduzu gai nagusi bat eta aurrera! Baina gero hobeto pentsatzen dut eta ez, estres maila handia litzateke. Hilabete behin denean eta abixua jasotzen dudanean, «zure txanda da», burua labadora bat bezala has-

ten zait zentrifugatzen; «gai hau, ez, bestea... puf, baina horri nola eta nondik heldu... honi buruz asko hitz egin da...». Ez dakizue ongi nire buruaren abiadura zein den momentu horietan. Baina beti dago edo aurkitzen dut zertaz idatzi.

Duela gutxi arte ez nintzen kontzientenorbaitek nire lerro hauek irakurtzen zituela, kalean geratu eta «oso ona azken artikulua» esan zidaten arte. Hor *apuro* pixka bat sartzen zait. Kazetari gisa beti gertatu zait hori, nik egin egiten dut lana eta publikoa dela ahaztu egiten zait. Baina kazetari gisa plazer hutsa da horrelako lekutxo bat izatea. •